

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ezkio-Itsaso



Aurkibidea

Udalerria: Ezkio-Itsaso

Sarrera



Ezkio-Itsaso Gipuzkoako hegoaldean dago, Goierriko bihotzean. Urola Garaiko partaide da administrazioari dagokionez, eta Beasain, Ormaiztegi, Gabiria, Azpeitia eta Zumarraga ditu mugatzat. Herri honek bi hirigune ditu: Ezkio eta Itsaso, 1965. urtean batu ziren udalerri bakarra sortuz. Santa Lutzia ibaiak zeharkatzen du herria, 3 kilometrotan zehar. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak:** 614
- **Euskaldunak:** %84,52

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **11**
- Zintak: **14**
- Pasarteak: **115**
- Transkribatutakoak: **21**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **23**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Gure Nagusiak - Urola Garaia: Mende bat iruditan
- Zegama, Urbia eta Aizkorriko artzaintza

Hizlariak

Miren Uribar

Itsasoko Uribar baserrikoa. 500 urte inguruko baserria da eta elkarriketa honetan baserriaren ezaugarriak azaltzen ditu: nolakoa den, nola zaharberritu duten, eta abar. Grabazioaren bukaeran Uribarko Joxe ere azaltzen da.

Maria Rosa Aierbe (1920)



Uribarren baserrian jaio zen, Ezkion. Gaztetan neskame lanetan aritu zen Donostian, baina gainerantzean Ezkion bizi izan da beti. Luzio Iraetarekin batera egin zitzaion elkarriketa "Gure nagusiak" libururako.

Benita Arabaolaza Uria (1914-2013)



Ezkioko Santa Luzia auzoan jaio zen, Oiarbide baserrian. Bere biki-laguna hil egin zen; eta bera, txikiena bazen ere, aurrera atera zen. Aurrena auzoan eta gero Zumarragan ibili zen ikasten eta han ikasi omen zuen erdaraz hitz egiten. 12 urte zituela, Andoaingo Borda baserrira joan ziren bizitzera; eta 18 urterekin neskame joan zen Donostiara. Han zenbait lekutan aritu zen; eta Alde Zaharreko kafetegi batean lanean ari zela hasi zen 36ko gerra. Senarra Donostiakoa zuen eta Andoainen bizi izan ziren.

Joxepa Aranburu Intxausti (1910-2012)



Ezkioko Igartzabalgoene baserrian jaio zen duela mende bat pasatxo. Ama Lazkaokoa zuen eta aita, berriz, Ezkiokoa. Hamar seme-alaba izan zituzten, baina batek ez zuen aurrera egin. Denen artean Joxepa bigarrena zen, emakumeetan zaharrena. Etxean lan asko egitea tokatu zitzaion, baina hamazazpi urte inguru zituela Zubietara joan zen Aliri baserrira neskame. Han hiru urte egin zituen; senide gazteena jaio zenean, anaia abisua ekartzera etorri zen eta etxera eraman zuen, amak haren beharra zuela esanez. Gero, beste sei urte egin zituen zerbitzatzen Zumarragako Urola Hotelean, Bergarara ezkondu zen arte. Bergaran bizi izan zen 1985 ingurura arte, eta azken urteetan Urnietan bizi izan zen.

Maria Luisa Atxukarro Telleria (1929)



Maria Luisa Pasai Antxon jaio zen, baina hilabete gutxi zituela ama hil egin zitzaion eta Ezkio-Itsasoko Santa Lutzi auzoko Arane baserrira joan zen bizitzera bere amona eta izeba osabekin. Ama zuen Arane baserrian jaioa. Osaba bat apaiza zuen eta berekin bizi izan zen Aizarnan bi urtez eta Lasarte Orian beste bi urtez. Hala ere bizitokitizat Arane baserria zuen, Santa Lutzi auzoan zituen lagunak, eta auzo horretan bizi izan zituen bere ume eta gazte garaiko momentu gehienak. Hamazazpi urte zituela, neskame joan zen beasaingo etxe batera eta hoteletan ere lan egin zuen. Zumarragara ezkondu zen eta bere senarraren familiaren kale etxean bizitzen egon zen senarrak eta berak etxe propioa erosi zuten arte. Elkarriketan bere lagun Agustina Zinkunegi ere egon zen, Maria Luisa, eskubian dagoena da.

Pakita Bereziartu (1919)



1919an jaio zen Andu Handi baserrian. Eskolara Ezkiora bertara joan zen eta gaztetan neskame ibili zen Tolosan. 25 urterekin Ezkiora itzuli zen, Igartubeiti baserriko Joxe Mendigurenekin ezkontzera. Igartubeiti baserria Gipuzkoako Aldundiak erosi zuen, konpondu eta museoa egiteko bertan, Euskal Herriko baserririk zahar eta ederrenetarikoa delako.

Lucio Iraeta Olano (1921-2015)



Errazti baserrian jaio zen, bere aita eta aitona bezalaxe. Aitonarengandik jaso zuen, gainera, egurra lantzeko trebezia. Kontratista lanetan aritutakoa da. Rosa Aierberekin batera egin zitzaion elkarriketa "Gure nagusiak" libururako.

Mahai-ingurua Ezkio-Itsason (1923)



Ezkio-Itsason tertulia bat egin genuen errepublika garaiko eta Gerra Zibileko kontuak jasotzeko. Bertan, honako lagun hauek hartu zuten parte: (Argazkian ezkerretik hasita) Joxefa Gorrotxategi (1923-01-27), Isabel Korta (1927-07-08), Joxe Angel Idiakez (1937-04-13/2015-01-24) eta Juanita Zumarraga (1927-03-27).

Joxe Mujika Etxeberria (1927)



Joxe Itsasoko Urteagandi baserrian jaio zen. Aita bertakoa zuen; eta ama, berriz, Garingoa. Sei urte zituela hasi zen eskolan; lau urtez ibili zen bertan, hamaika urterekin morroi joan baitzen senitarteko batzuen etxera. Soldaduska egin aurretik, basoko lanetan hasi eta hala ibili zen erretiroa hartu zuen arte.

Martin Telleria Baztarrika (1936)



Ezkioko Arane baserrian jaio zen 1936an. Aita Aranekoa eta ama Igartuerdi baserrikoak zituen, biak Ezkiokoak. 2 anaia biki dira. Eskolan Ezkioko Santa Luzi auzoan eta Zumarragako "hermanoetan" ibili zen. Baserritik bizi izan dira beti. Soldadutza Iruñean eta Burgeten egin zuen eta handik itzuli zenean hasi zen lanean Zumarragan. Amasan ezkondu zen, emaztea Altzokoa du eta bi semeren aita da.



Inazio Zabalo Rubio (1938)

Ezkioko Mendizabalen jaioa, Inazio "Rubio" goitizenez ere ezaguna. Emaztea Hilari Lapizondo (Zegamako Dinti baserrikoa). Elkarrizketa egin zitzaizenean Zeraingo Kaminpe baserrian bizi ziren.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Familia eta harremanak

1.1. 1919an jaioa

- **Hizlaria(k)**: Bereziartu, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Bereziartua, Joxe Manuel "Bere"
- **Erref**: EZK-004/001
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:17
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Abizenaren inguruko kontuak. 1919-08-30ean jaioa da, ingurukoek 31koa dela uste izan badute ere.

Transkripzioa

- Bereciartu edo Bereciartua?
- Ez, Bereciartu.
- Ni Bereciartua naiz.
- Ah! Bai, bai guk ere... "hasta hace unos años sí", baino bat jun zan... enterau in behar zola beak! zan espeziala... eta jun zan, nik ez dakit noa jun zan, ta ekarri zon harek notizie "que somos Bereciartu".

- Bereziartu zeate?
 - Ta oain Bereziartu, hori da!
 - Ze urtetan jaiotakoa zea?
 - Mil novecientos diecinueve.
 - Hemeretziak?
 - Bai!
 - Ta ze egunetan? Ze egunetan? Ze eguna? Ze egunetakoa zea?
 - Itxoin, itxoin. "Treinta y uno de agosto" esaten ziaten, baino hori´re ez da hala, treintan jaio omen nitzen. Beti "treinta y uno de agosto", eta Donostin dauzket familiar batzuk, eta beti "treinta y uno de agosto se creen que tengo el cumpleaños". Eta... esan ziaten udaletxen: treinta... ez zare treinta y unon jaiota, jaio treintan zare inda. Eta treinta y unon ayuntamentun.
 - Hortxe ibili zinen endredoa ematen goizeko, gaueko, hamabitan... hortxe, tarte hortan ez? Treinta, treinta y uno...
 - Hori ba, ta geo oain, esan non: "bueno, bi eunetan zeledatu beharko det treinta y uno y treinta". Baino ez, treintan jaio ta treinta y unon ayuntamentun, la lista.

1.2. Ezkioko Andu Handi baserrian jaioa

- **Hizlaria(k):** Bereziartu, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bereziartua, Joxe Manuel "Bere"
- **Erref:** EZK-004/003
- **Iraupena:** 0:00:24. **Hasi:** 00:02:07. **Bukatu:** 00:02:31
- **Gaia(k):**
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Pakita Ezkioko Andu Handi baserrian jaioa da. Gurasoak baserritarak zituen.

Transkripzioa

- Bueno lasai! Bueno eta zu nun jaiotakoa zea Pakita?
 - Ezkio, Ezkio... Ezquioga, Ezkion, Ezkio.
 - Ze baserritan edo nun?
 - Andu Handi!
 - Andu Handin? Aitta zer zan baserritarra?
 - Bai, bai, aita eta ama biak, biak bai.
 - Biak baserrikoak?
 - Oso baserrin gainea, buenoo...

1.3. Zazpi anai-arrebako familiakoa

- **Hizlaria(k):** Bereziartu, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bereziartua, Joxe Manuel "Bere"
- **Erref:** EZK-004/005
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 00:03:46. **Bukatu:** 00:04:14
- **Gaia(k):**
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Zazpi anai-arreba ziren etxean, bost neska eta bi mutil.

Transkripzioa

- Baiño zuek zenbat senide ziñeten? Zenbat anai-arreba?
- Gu geu? Ala...
- Bai, bai, txikitan, bai, zure anai- arrebak.
- Zazpi
- Zazpi ziñaten?
- Bi mutil eta bost neska.
- Neska asko.
- Hola giñutzen ba!
- Baserrin komeni al da neska asko egotea o hobe da mutila egotea? Zuri ze traza hartzen diozu?
- Oain behintzat berdiñak e! oain behintzat berdiñak die.

1.4. Etxeko jolasak

- **Hizlaria(k):** Bereziartu, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bereziartua, Joxe Manuel "Bere"
- **Erref:** EZK-004/008
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:08:15. **Bukatu:** 00:08:51
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena:** Etxean jolas egiten zuten, ezkutaketan, txori-habia bila, harrapaketan, etab.

Transkripzioa

- Eskolan-ta leittu bai, baiña esan nahi det, gero ya etxen irakurtzeko astirik eta...
- Gero etxen... jolas ein.
- Jolas ein?
- Jolastu eitten gendula guk txikik giñenen, jolastu.
- Ze jolas eiten zenduen?
- Ba, korrikan edo harrapaketan, ta izkutaketan ta...
- Txori kabik bilatzea ta hola ´re bai?
- Baita, baita hori ´re pixkat bai. Ta perretxikuk bilatzea ´re bai, gertun genduzken ta.
- Ta sagarrak lapurtu, ahal bazien, pare bat edo, abusu egin gabe...?
- Ez, hortan no... baiño...
- Ordun ez zan beharrik ere, sagarra asko eongo zan eta hartu lurretik eta...
- Bai, bai, baita.
- Txori kabik bilatzea ta...

1.5. Ama 'Joxpiki'

- **Hizlaria(k):** Bereziartu, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bereziartua, Joxe Manuel "Bere"
- **Erref:** EZK-004/009
- **Iraupena:** 0:00:26. **Hasi:** 00:08:51. **Bukatu:** 00:09:17
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

- **Laburpena:** Ama, Joxepa Inazia Garmendia 'Joxpíxi', bihotz handikoa eta langilea zen.

Transkripzioa

- Osea, kategoria ez genduken jaten´e, lujoik batere ez, baiña goseik´e ez. Gosea´re ez gendun pasatzen. Ama oso ona gendun ta. Oso ona ama, "valía oro".
- Nola zun izena amak?
- Josefa Ignacia, Joxpíxi, Josefa Ignacia, bai Joxpíxi. Balio zon asko amak.

1.6. Neskame urte askoan etxe berean

- **Hizlaria(k):** Bereziartu, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bereziartua, Joxe Manuel "Bere"
- **Erref:** EZK-004/012
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:15:26. **Bukatu:** 00:17:52
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Fusilaketaren ondorenean ere Pakitak etxe hartan jarraitu zuen lanean Caballero zenaren semea etxera itzuli baitzen. Bere ahizpak ere han jarraitu zuen. Etxe hartako giroa aipatzen du. Haren alabetako bat moja joan zen.

Transkripzioa

- Eta, ordun, zuk seittu zenun, eta zein zenittun etxe hartan? bizitzen zein zian?
- Ba bi alaba horik, eta nere ahizpa. Nere ahizpa zeon eta bi alaba...
- Alaba hoiek gaztetxoak, ez?
- Bai, bueno, horik ia ni baiño zaharragok bik.
- A, bai?
- Bai, zien ni baiño zahartxegok. Osea, nik neuzken ordun han ba hemeretzi urte? Eta haiek ba hogeí edo hogeta bat, hola zien behintzat.
- Eta hoiekin segitu zenun.
- Bai, denboralditxo bat bai. Gero, gaiñea, zeon semen andrea, hori, erreiñe, ta hura´re batzutan etortzen zan, ta alabakin-ta juntatzen zien ta nearraldi bat iten zuten... Ta aitai hori...
- Zuri ere sartuko zitzaizun halako zea bat, ez?
- Bueno, guk ordun oain bezela...
- Jakiñik zuk atea ireki zenuela ta hori guztia... tratu txarra da hori e!
- Bai, bai, hoixe dala! Eta oain... Giñen pixu bat, pixu baten bizi giñen, pixu bat zan. Ez zan etxe bakarra´re, Caballero hori, pixu bat. Eta aldameneko neskamek´e launek giñutzen. Ta, gaiñea, gauen bildurrekin lurren etzanda neskame danak lo itten gendun, eun batzutan. Hori gerra denboran, e! Gerra denboran.
- Alkarren babesa-edo bilatuz, ez?
- Zeoze behintzat, zeatio balak botatzen zittuzten de Navarra, Naparroti. Eta bilatu gendun poltxiku baten bala bat —hori´re bai—, handik etorríta. Ez giñutzen gu harrapau ta poltxikun sartu zan bala hori. Así, holaxe izan zien, ba, hango kontuk´e.
- Osea ke, gerra garaia hor Tolosan pasatu zenun.
- Bai. Bai, bai, bai, bai. Eta gero entzun gendun, bueno, ba, libratu giñela ba gerratik´e Tolosan.

- Bukatu zan gerra, ez?

- Bai, bai bukatu zan. Bukatu zan ta... Bukatu zala ta...

- Gerra bukatu ta gero etorriko zan semea ere, edo lehenago?

- Ez, gero gon, geroxeo, geroxeo. Baiño laixte nik uste etorriko zan, hori ez dauket oso kontun, baiño geroxeon etorriko zan.

- (senidea): Alabak jun zien monja.

- Alabak, Caballero horren alabak, monja jun ziran?

- Bai, bat eskolan zebilenetik zeuken bokazioa moja juteko. Besteak ez. La otra, la mayor, era una señorita. Ta hure, Pepita, señorita. Baiña bestea, Remedios Caballero, Remedios Caballero eta eskolatik zeuken bokazioa moja juteko, ta hure moja jun zan. Baiño bestea ez zan jun.

1.7. Ezkion ezkondu eta Zaragozara

- **Hizlaria(k)**: Bereziartu, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Bereziartua, Joxe Manuel "Bere"
- **Erref**: EZK-004/014
- **Iraupena**: 0:03:07. **Hasi**: 00:18:53. **Bukatu**: 00:22:00
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena**: Urte batzuk Tolosan igaro ondoren, ezkondu egin zen. Senarra lehendik ezagutzen zuen. Goizeko seietan ezkondu ziren eta gogoan du Ezkion soldaduak zeudela egun hartan. Ezkondu ziren egun berean Zaragozara joan ziren eta handik itzultzean egin zuten ezkontzako bazkaria etxean.

Transkripzioa

- Eta gero ya, urte batzuk egin han ez? Tolosan papeleran... eta ze urtekin bueltauko ziñan zeara, etxera, Ezkiora?

- Ba ni handik ezkontzea zea ingo nintzen neu're, Ezkioko bat lehen ezaune neukena. Lehendik, eskolatik-eta ezautzen giñen. Ordun baserrik gertun zeuden ta... bai, eskolatik ezautzen gendunakin. Eta gero, ni ezkondu, ordun ezkonduko nintzen. Handi, bai. Beste iñoa ez nitzen ni jun.

- Baiño -nobioa ezautzen zendun aurretik, baiño- noiz hasi ziñaten nobio bezela edo?

- Ba, ordun, ordun, gero.

- A! etorri ziñanean?

- Bai, baiño ya han neola. Ta geo etxea...

- Han zeundela ya pixkat tratun hasi...

- Bai, bai, bai, bi baserrik gertun zeuden eta ezautzen giñen, bai.

- Ya, ya, ya.

- Senarra bai.

- Bueno, eta zenbat urtekin ezkondu ziñen?

- Itxoin, nik urtek... ezkondu...

- Gutxi gorabehera, e.

- Laister... Bai.... gutxi gorabehera, bai, bai. Bai, denbora luze ez giñen ibili gu. Ez dakit ba ze...

- 25/30 urtekin edo?

- Hogeta bost, hogeta bost uste det, bai, hogeta bost urtekin ezkondu nitzela.

- Hemen Ezkion?

- Bai, bai, Ezkion, goizeko seiretan.

- Ezkondu al ziñan?

- Bai.

- Joe! Zer zenun beldurra alde ingo ote zun ala?

- Oain bezela ez. Ordun, bueno...! Goizeko seiretan. Eta, gaiñea, ordun zeuden, ba, gerra denbora nola zan, soldaduk zeuden Ezkion.

- A bai?

- Soldadu tropela.

- Bueno, gerra ya bukatuta egongo zan, ez?

- Bukatuta, bai.

- Baiño oraindik ere bazeuden?

- Bai, bai, bai, bai. Eta hantxe, gure baserriko basotan ta [Olaan] zeuden.

- Soldaduak eta.

- Eta haen tarteti ezkontzea, elizara.

- A ze eskolta eraman zenutena Ezkioko eliza!

- Bai, bai, hoixe. Baiña goizeko seiretan, e!

- Goizeko seiretan?

- Bai. Gaur hamabitan eo ordu bata eo hola izaten da, baiño ordun seiretan ezkondu giñen. Ta jun giñen Zaragoza.

- Baiño seiretan zergaitik? Eliza...

- Hoi nik ez dakit zergatik, baiño ordun normala zan.

- Baiño gero bazkaria eta hori egingo zenuten, festa pixka bat. Ez?

- Bueno, ez. Egun hartan behintzat "a Zaragoza".

- Zuzenean? Ezkondu eta egun berberean?

- Bai, "a Zaragoza". Eta gero, handik etorri... Ordun jenerala zan hori, gaiñea, e! Zeatio ostegun bat izango zan ezkondu giñena eta iganden etorri Zaragozatik eta... Itxoin. Zaragozatik etorri ta ordun bazkarie, "invitados" ordun.

- Aiba!

- Jaien. Bai.

- Eta Zaragozako biaje hori zer zala ta? Pixkat ikustea Zaragoza?

- Klaro, klaro, "viaje de novios".

- "Viaje de novios"? Osea, lenengo iten zendun ezkondu, "viaje de novios" a 3-4 egunetakoa...

- Eta gero "invitados".

- ... eta gero...

- Bazkaria, etxen, baserrin. Bai.

- Etxen.

- Bai, bai.

- Aittak igual hilko zun txekorren bat edo, ez?

- Ez, ez, no! Hori ez dauket gogon. Baiño bai, kozinera eamaten zan espresamente bazkaria prestatzeko, ta horrela. Hoixe dauket, ba, gogon.

1.8. Umea galdu zueneko bizipenak

- **Hizlaria(k):** Bereziartu, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bereziartua, Joxe Manuel "Bere"
- **Erref:** EZK-004/015
- **Iraupena:** 0:04:38. **Hasi:** 00:22:00. **Bukatu:** 00:26:38
- **Gaia(k):**
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
 Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
 Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- **Laburpena:** Ezkondu ondorenean Ezkion jarri ziren bizitzen. Senarra bere etxe ondoko baserrikoa zen. Baserrian lan egiten zuen. Hiru seme eta alaba izan zituen. Ume bat galdu ere egin zuen. Orduko gertaerak

kontatzen ditu. Orduan ez zen kotxerik eta amerikar bati laguntza eskatuta joan ziren Zumarragatik Donostiara. Hamargarren egunerako hasi zen osatzen.

Transkripzioa

- Eta gero ya jarri ziñaten hemen bizitzen?
- Bai, bai.
- Senarra bertakoa zan? Igartubeitikoa zan?
- Bai, bai. Andu Handikok gu, behean zeon baserri bat.
- Hori da, zu Andu Handikoa ta...
- Ta beste bat goraxeon Beitti, senarrana pixkat goraxeon.
- Ta senarrak ze iten zun baserrin ta? Lana ta hori esan nahi det.
- Bai, bai, bai.
- Zer zeneuzkaten, pues, betikoa, behiak eta ahuntzak eta...? Behiak ta sorok eta hola, ez?
- Bai, bai, danetik pixkat izaten zan ordun, "poca cosa", gutxi.
- Hori da, danetatik pixka bat. Hori da. Eta ordun ya hasiko ziñen seme ta alabak eukitzen edo?
- Bai, bai, bai.
- Zenbat euki dittuzu?
- Nik euki bost: lau mutil eta neska bat. Nobena in eta ekarri gendun neska hori, erregututa.
- A bai?
- (Senidea): Gero bat hil zan.
- E?
- (Senidea): Bat ez zan jaio.
- ¿Cómo que no?
- Zenbat dauzkazu oain? Bost?
- Bai, lau mutil ta neska... EZ! Hiru mutil ta neska. Hiru mutil ta neska. Hori da! Hiru mutil eta neska.
- Eta bat...
- (Senidea): Aborto bat.
- A, bai, hori bai. Uuu!!! Horik nola eaman nittuen Donostira. Sin sangre.
- Bai, horik gertau iten ziran, ez? Horik gertau iten ziran sasoi hartan, medikua ´re urruti eta... Klaro, konplikazion bat euki ezkerro erditzerakoan...
- Hemorragi bat eman zian eta me quedé sin sangre.
- Klaro, klaro, klaro.
- Eta Donostira hartu ta eaman nittuen.
- Ordun bastante ohikoa zan jendeak, ba, edo semeak hilda jaio o gaixotasunak ere izaten zian ta...
- Ba, ba, sin nada, falta bat bakarrik neuken eta hemorragik eman zian. Eta "que me iba en... o sea, en sangre; sin sangre me quedé" eta medikue bizkorra izan zan, notau zeatio ote zan, ze nee senarra jun ta medikui esplikazioa in zion eta "¿qué podrá ser?, ¿qué puede tener pues? esto y esto..." ta behintzat bizkorra izan zan. Zeatio mediku harek aurreko eunen gauza horrezaz hitz ein emen zon beste batekin "por casualidad" eta seitun antzeman "que me tenían que operar enseguida; pero enseguida eh!". Beak laundu zian medikuk Donostira juten ´e. Eta ordun ez zan kotxeik ´e oain bezela eta Zumarraga jun zien nere senarra eta koiñatue. Eta han esplikatu zioten, amerikano bat kotxekin eo. San Ferminen zien, gaiñea, ordun, San Fermine. Eta han amerikano horren kotxea Zumarran billau. Ez zeon /etzeon/ ba kotxeik iñun ´e! Eta esan diote horri ze gertatzen zitzaien eta "desconfiado". Como eran San Fermine", desconfiada. Eta esan omen zon: "egie esaten al diazue? Egie?" eta bestek larri, nere senarra-ta larri, baietz ba, baietz, ez zeukatela kotxeik eta azkar behar

zuela. Ta utzi zioten amerikano horrek kotxe hori ni eamateko. Ta medikue ´re hantxe jun zan, Bengoa, [...]. Eta jun giñen Donostira. Tolosan geldittu eta indizio bat jarri zian medikuk, Bengoak. Eske ni ai nitzen, ai nitzen azkenetan, azkenak ematen. "Me acuerdo al salir de casa un respiro así hice" eta "sin conocimiento".

- Odolusten, ez?

- Bai, bai, odolusten. Eta Donostira! Bueno, ba, eaman naue Donostira eta han moittu zittuen han neuzken parientek eta horik danak eta hasi die... Moja ´re hantxe [zeuden], koiñata bat, ospital hartan. Eta hasi zienen odola sartzeko, zaiñik ezin billau, ezin billau. Hustuta. Eta iriki ziaten hau eta "en la pierna también", beste iriki bat in ziaten, odola sartzeko zaiñe billatzeko. Ez zuten zaiñik bilatzen. Eta hala, hori in zuen behintzat.

- Eta gaur eguneko adelantuak ez zeuden ta...

- Ez ba, ez ba! Eta hori pasa zan eta hamar euneako esan nien nik: "Badauket apetittu bat... jango nuke... azak jango nittuzke, azak eta indabak jango nittuzke".

- Beira! Seiñale ona.

- Bai. Osea, sano eon, bakarrik hoixe, la hemorragia. Eta...

- Bueno. Hori pixkat errekuperatzen hasi ziñanen ya ondo.

- Bai, bai.

- Emakume gogorra izan ere...

- Eta neuzken orduako, orduako bi seme neuzken.

- Oseake hori hirugarrena zan. Izango zan.

- Bai, bai, hemorragie... Para nada, bueno, hori... ez zan azaldu ezer ez, falta bat bakarrik neuken ta. Hori hola izan zan ba. Bai, "ahora me estoy acordando".

1.9. Oiarbiden jaioa, Ezkion; bikia hil zitzaion

- **Hizlaria(k):** Arabaolaza Uria, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** EZK-008/002
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:01:24. **Bukatu:** 00:03:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Ezkion jaio zen, Oiarbide baserrian. Ezkio eta Itsaso ez zeuden artean elkartuta. Aita oñatiarra zuen, ama Gabiriakoa; haiek ere baserritarrak. Jaiotetxea nolakoa zen. Bederatzitik bost senide irten ziren aurrera. Bere bikia hil egin zen.

Transkripzioa

- Oiarbide zeon garai hartako Ezkion.

- Ezkion. Oain Ezkio-Itsaso da, baiño ordun biak zea zian, bakoitza beria zian, Itsaso txikigoa ta Ezkio´re ba... hola, ta biak alkartu in zien.

- Ta zu Ezkion jaio ziñen ta aitta ta ama, berriz, nunguak zenittun?

- Aitta Oñatin jaiyua, ta ama Gabirin jaiyua, hor beste etxe hortan.

- Beste kuadro hortan?

- Beste kuadro hortan.

- Ta haiek ere baserritarrak.

- Hoixe! Nunguak izango zian, ba!

- Zu zeorre´re bai.

- Ni´re bai, hoixe baserritarra!

- Nolakoa zan zure jaiotetxea?
- Neria? Jaiotetxia politta zan. Behintzat kuartuak, lo itteko kuartuak, bakoitzak, aittona ta amona ta,aitta ta amana ta hiru o lau bagiñun.
- Ta senide asko al ziñaten?
- U! Bost bizi giñen, baiño hillak ere bazian. Beatzi esaten zun gure amak.
- Ta beste lauak ttikik ziala hillek edo?
- Bai, bat hil zan nere aurrekua meningitisakin, eta bestia aborto luze batekin. Asike nik eta nere anaiak sei urten aldia gendun. Ni bixkia nitzen, naiz.
- A bai?
- Bai. Ta nere ahizpa hil in zan. Hua ederra emen zan, eta ni berriz kaxkarra. Eta ni, ni... amak esaten zun, ni hilko nitzelako ta neri kaso itten ai zian bitartian, bestia hil zitzaien.
- Ooo...
- Hoi pasa zan.

1.10. Etxeko txikiena; jostailurik ez zuen

- **Hizlaria(k):** Arabaolaza Uria, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** EZK-008/004
- **Iraupena:** 0:03:56. **Hasi:** 00:04:02. **Bukatu:** 00:07:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Sei urteko aldea zuen hurrengoarekin, eta bera zen txikiena. Aldameneko etxera joaten zen, lagunengana. Kartoizko kaxa batean sartu zutenik ez du gogoan. Egurrezko sehaska. Jostailurik ez zuen; behin, kartoizko panpina, paperezko arropak egiten zizkion.

Transkripzioa

- Ze izango nitzen ba, hantxen baserrin, bakarra banitza bezela. Zeatikan hemen neretikan bestea sei urte, eta bestie... bi anai ta ahizpa, ahizpa zaharrena gendun, haik... fuf! haundiguak zian. Ta ni txikina, ba, bakarrik banintzan bezela. Ni beti bakarrik. Aldameneko etxian bazian nere modukuak eta hairi eskerrak eta, lagunak izaten nittun, baiño...
- Ta zu esan dezu ttiki-ttikia ziñela.
- Bai.
- Ttiki-ttikia eta exkaxa-eo esan dezu zuk, kaxkarra.
- Bai, baiño osasun onekua.
- Ta zure amak kontatzen al zun zuri nola itten zizuen kaso?
- Neri nola itten zien kaso?
- Bai, mantakin o tapatu o, nola, nola aitzen zian zu zaintzen?
- Jakizu nola! Ahal zan bezela. Lehen o lau hazita zeon ta nere mantak ez zian izango berrinak.
- Laguntzailea: Bai, aber, barkatu, kontatzen dezu, ba, xexto batian edo kaja batian edo... ze kontatu izan dezu batzutan?
- Kaja batian?
- L.: Bai, zu hain txikiya ziñela ta, ez zizuten sartu kaja batian? Kajatxo batian eta han sukaldian utzi?
- Ez, hori ez naiz gogoatzen.
- Nik'e horregatik galdetzen nizun, Benita, zapata kajatan eta algodoi

tartian eta...

- Sehaska, egurrezko sehaska bat gogoatzen naiz ni nola gendun trinkin-trankan, trinkin-trankan. Egurrezkua zan, gaztaiñazkua eo hola izango zan.
- Eta jolasian eta?
- E?
- Jolasteko-ta aldameneko...?
- Aldamenekuakin? Nik ez nun jostailuik izaten. Gogoatzen naiz behin muñeka... kartoizko muñeka bat izan nula.
- Kartoizkua, e?
- E?
- Kartoizkua.
- Bai, urdun baserriako ez zeon ezer, kalia izango zian, baiño baserritan ez zan.
- Ta nolakua zan muñeka hura?
- Hua? Kartoizkua ta, ni gogoatzen naiz arpegiya garbitzen ai nitzela sudurra zeatuta utzi niyola, sudurra, azala kenduta. Hoixe besteik ez naiz gogoatzen. Geroztik ez nun izan beste muñekaik.
- Eta jantziyikan-eta izaten al zun jantziikan?
- Orduko jantziik ez naiz gogoatzen, ze jazten nittun.
- Muñekak, muñekanak e, kartoizko muñekanak.
- A! Muñekai paperezkuak itten nizkion. Soñekuak itten nizkion, bai, paperezkuak.
- Hara!
- Bai.
- Zuk zeorrek, e?
- Bai. Ta kaja bat eukitzen nun, kaja hartan [...] goraizakin itten nittun.
- Eta [...].
- Beste jostailluik ez genun ta.
- Ta pitxiikan eo koillareik eo jartzen zeniyon muñekai?
- Bai zea! Ordun e...
- Muñekai e.
- A, muñekai jartzeko koillaria nun izango nun ba?
- Soka zharren bat edo, ez al zan?
- Bai, zerbait jarriko niyon. Ez genun ikusten ta.
- Hoi ba.
- Ordun.

2. Baserria

2.1. Etxean fruitu-arboletarako afizioa

- **Hizlaria(k)**: Bereziartu, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Bereziartua, Joxe Manuel "Bere"
- **Erref**: EZK-004/004
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:02:31. **Bukatu**: 00:03:46
- **Gaia(k)**:
 - Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 - Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena**: Baserria eta lur-sailak handiak ziren, baina 2-3 behi besterik ez zituzten izaten. Etxeko gizonak (senarrak eta koinatuak) fruitu arbolak landatu eta haiekin lan egiteko afizioa zuten. Hori dela eta, batzuek "Fruteros" deitzen zieten.

Transkripzioa

- Zer zan haundie baserria?
- Bai, baiño ez zan /etzan/ ordun baserrie gaur bezela itten e. Behiek... Haundie bai baserrie, etxea, ta terrenok´e bai, baiño behiek bi-hiru "no más".
- Eta ze itten zenuten garia, ta artoa ta babak...
- Bai, bai pixkat, pixkat garai hartan.
- Baserrian ordun itten zan denetarik pixka bat, oilo batzuk, koneju batzuk, ardi batzuk, bariedadea eoten zan, ez?
- Bai, behiena gehiena. Eta gero guren ilusioa zuten gizonezkoak fruta arbolak.
- Gizonezkoak esan nahi dezu zure anaiak?
- Ez, koiñatok, koiñatok zon hori. Ta gizonak´e bai, esto, fruta arbolak, hortixi, hortixi... Bazan jendea hots eitten, esaten ziutena "Fruteros".
- "Fruteros"?
- Bai, zeatio halaxe zuen Beittin ilusioa. Ta behiekin ez zuen gero ateratzen ezer.
- Behiekin?
- Zeatio dana batea etortzen zien, belarrak eta danak gero alperrik galdu.
- Klaro, ta ezin danetara iritxi.
- Daneta ezin.
- Fruta jaso ta behiek jetzi ta belarra...
- Hori da, hori da, bai, bai... baiño bolara bat euki zuten fruta...!!
- Hori zein esan dezu zure koiñadue?
- Bai, koiñadue. Bizi zien bi anai, nere senarra ta...
- Mendigurentarrak?
- Bai, bai, bai...

3. Lanbideak

3.1. Tolosan, neskame eta paper lantegian

- **Hizlaria(k):** Bereziartu, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bereziartua, Joxe Manuel "Bere"
- **Erref:** EZK-004/006
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:04:14. **Bukatu:** 00:05:10
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Neskak neskame joaten ziren. Pakita 17 urterekin joan zen lanera. Tolosan neskame egon zen lehenengo eta gero paper lantegi batean aritu zen lanean. Bi ahizpa zituen eta haiek eraman zuten. Neskame egon zen tokiko nagusia, gerra garaian, berak 17 urte zituela, fusilatu egin zuten.

Transkripzioa

- Gero guk irtetzen gendun "a servir", neskame! Neskak neskame!!
- Bai? Oseake...
- Tolosan eonda nau, ta papeleran´e in non lana pixkat berriz.
- Bai? Ze jun ziñen gaztetan? Oso gaztetan?
- Hamazazpi urtekin. Lehen bi ahizpa neuzken ta haiek eaman zia... bat ezkondu zanen, ni eaman nituen haien ondora. Con Caballero, aitzeraik ez dezu Caballeronik?
- Ez...

- Fusilau in zuen gizona. Bai, nausie fusilau in zuen eta..., zea ziela... nola da hori?
- Ze izango zan gerra garaian hori?
- Bai, bai, lehenauko gerran, nik hure ezautu non, gerra hure!
- Zuk gerran, Españiko gerran zeneuzkan 17 urte.
- Bai, bai, bai, bai.
- Jun berritan?
- Bai! Eta hantxe zerbitzen eon nitzenen ni...

3.2. Neskame egon zeneko kontuak

- **Hizlaria(k)**: Bereziartu, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Bereziartua, Joxe Manuel "Bere"
- **Erref**: EZK-004/010
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:09:17. **Bukatu**: 00:11:32
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena**: Tolosan bi ahizpa zituen bera neskame joan aurretik eta bat ezkontzen zelako joan zen haren ordezkari. Caballero zuen izena nagusiak eta paper lantegiaren jabea zen. Neskametzan, mahaia zerbitzatzen lan egiten zuen eta semeak ahizpak zaintzen zituen.

Transkripzioa

- Eta gero ordun hamasei-hamazazpi urterekin Tolosara lanera?
- Bai.
- Neskame?
- Neskame! Bi ahizpa neuzken han.
- Ya aurretik! Osea, zu ez zifan zaharrena senidetan
- Ez, ez zaharrena han zeon, neskame zeon.
- Bai... ta beste bat'e bai ta...
- Hua ezkondu iten zan ordun, ta ni horreatio eaman nittuen beste ahizpa baten ondora.
- Eta haren ordezkari edo jun zinan, ezkontzen zalako hura, Caballero horren etxea.
- Horren etxea, zeatio horrik zeukaten... bi neska eukitzen zittuen: cocinera y... bestea, ni.
- Neskame o zerbitzen o...
- Bai, bai, bai. "Camarera, como se dice ahora".
- Kamarera, hori da.
- Ordun ez dakit ze esaten gendun, baiño...
- "La muchacha" esaten zan asko baita.
- Bai, bai, baita. Neskamea!
- Neskamea euskeraz eta "La muhacha" edo...
- Bai, hori da.
- "La sirvienta" edo "el servicio" edo...
- Bai, ba, eta holaxe eon ginen.
- Eta Caballero hau zein zan ba? Zer zan e...?
- Hau... enpresa zeuken! "Papelera era de él". Berea zan papelera zeakoa, "no sé qué nombre", oain ez zat segittun... berdin da, berdin da... PAPELERA ESPAÑOLA! Zan ordun. Oaiñ'e badakit nun daun hure, hospitala dauke goien harek.
- Eta ze in behar zendun? Mahaia-eta zerbitzatu, ohiak egin... eta umeak ere zaindu igual?

- Ez, umeik ez zeon han ordun ia.
 - Ez zeon umeik?
 - Ama hilda zeukaten, eta hango nagusie etorri zan Andondira. Faborez eskatu zion gure gurasoi neskamea ez kentzeko behintzat, zeatio umek txikik zittula hil zitzaion andrea eta nahi zon, ohittuta zeren umek gure ahizpakin, eta ahizpa hure ez kentzeko behintzat. Ezkontzen zan, baiño...
 - Semeak-eta zaintzeko behintzat.
 - Bai, bai.
 - Kariñoa hartuko zioten zure...
 - Ta gaztek zien ta... seme bat eta bi alaba zien haiek.
 - Osea, umeak zaintzen zittun zure ahizpa zaharrenak eta gero zu han etxea pixkat goarnatzen edo atenditzen edo...
 - Bai, bai. Ta beste ahizpa kozinera, ta... hantxe hirurok ibiltzen ginen lenengotik, baiño gero ezkondu zan ta gero bi eoten giñen, ni ta beste bat. Bai, hilda die haek bik, danak hilda dauzket, neu bakarrik!

4. Ohiturak eta bizimodua

4.1. Eskolan irakurketa atsegin zuen

- **Hizlaria(k):** Bereziartu, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bereziartua, Joxe Manuel "Bere"
- **Erref:** EZK-004/007
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:05:10. **Bukatu:** 00:08:15
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Neskame joan aurretik eskolan ibili zen. Irakasleak aipatzen ditu. Apaiz euskaldun bat ere izan zuen irakasle, orduan euskarak bultzada handia izan zuen. Irakurtzen oso ondo zekien eta bera izaten zen eskolan beti irakurtzen zuena. Pasadizo bat kontatzen du.

Transkripzioa

- Baiño bittarte horretan hemen, Ezkion, ze bizimodu in zendun? Lana baserrin?
 - Baserrin, bai, bai, bai
 - Ta eskolan?
 - Bueno, bi gizonezko neuzken etxen eta umekin... gehiena nik etxen.
 - Ez, ez, baiño esaten dizut zu ume ziñela.
 - A! ni umea nitzela? Ba eskola juten giñen, amak bialtzen ziun eskolara.
 - Nora? hemen beheran?
 - Bai
 - Ze maistra o ze maisu euki zenun?
 - Ba maistra bat zan hure, Juanita hure, hor nunbaitt hemengoa. Baiño gero beste bat etorri zitzaion Zaragozako Asunción, Asunción eta hure buff!! Builak ateratzen zittun, baiño erakusteko ez zon balio.
 - Ez zon balio?
 - Ez! Ormaizteiko batek...
 - "Mucho ruido y pocas nueces" esaten dana?
 - Bai, bai, harek bai... Baiño hemen Ormazteiko bat euki gendun sobrestanten alaba, ez zan haundie, ni bezelaxe, baiño haren eskola dauket nik. A! Haren aurretik euki gendun apaiz bat, hauunndi bat! Don Juan `Haundie´ esaten giñun.

- Don Juan `Haundie´?

- Bai, hure euskaldune e! Ordun, garai hartan izan zan... euskerak izan zon indar bat. Ordun, oain bezelaxe, ordun´e nere garaian! Ta nik irakurtzen oso ondo itten emen non eta etortzen zien eskola, iñor etortzen baldin bazan, beti neri irakurtzeko. Irakurtzen ipintzen...

- A ver Pakita, leittu zazu pixka bat hauek entzuteko, ta zuk taka! leittu, ez?

- A! Bai, bai, bai, bai.

- Dotriña ta holako gauzak?

- Bai, bai. Ta esango dizut, Donostira eaman giñutzen ordun, nola zan, esan dizut euskerak indar pixkat... ba, zea baten, eskursio baten, ta eman giñutzen sei neska. Ni nitzen zazpi urtekoa... hola lurren justun ikusten nitzen —bai, badakit hori— eta bestek haundigok zien, —gero maistra´re ikasi zon batek ta. Baiño, ordun, hala giñen. Eta eaman ziguten Donostira, zea, eskursio horta, eta ni tabladuri batea igo nittuen —ez nitzen ba ikusi´re itten, hain txikie zazpi urtekin!— eta gero irakurtzen ipini nituen tabladuri hortan.

- Jende aurren?

- Bai, bai, jende askon aurren. Eta nik irakurri non... Nik ez dakit ze irakurri non, baiña han bazekien batzuk, "política algo, algo de la política" izango zan. Jo ziaten txalo batzuk...!!

- Bai ala?

- Bueno!! Eta "el primer premio" atera omen non.

- A bai?

- Hori esan ziaten. Baiño guk ez gendun dirue ikusi, beajen gastau omen zan; hoge duro o ez dakit ze "del premio", baiño beajen.

- A ze estreinoa!

- Bai, bai, beajen gastau omen zan ta...

- Pakita, irabazi, baiño...

- Baiño... Bai. Eta gero argazkik. Hori bai, argazkie badet nik, hor due, alabak-eta eukiko dittue, baina argazkie atara ziaten eta hori... horixe, "ese recuerdo ya tengo" ordukoa.

- Osea que ya txikitatik, bueno, bixie ta leitzen ta...

- Hori bai. Irakurtzeko bai, danai... dana ez dakit nik zenbaitei...

- Zuk bestela irakurtzeko asti handirik ez zendun eukiko etxen ta hola o, lana in behar ardik zaindu eta...

- Gainea ez, ez, ez eskolara, eskolan... Ama zan gurea... eskolara umek bealdu zittun e, bialdu giñutzen amak, amak bai.

4.2. Bederatziurrena, neska jaio zedin

- **Hizlaria(k):** Bereziartu, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bereziartua, Joxe Manuel "Bere"
- **Erref:** EZK-004/016
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:26:38. **Bukatu:** 00:29:08
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
 - Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- **Laburpena:** Bera gustura zegoen semeekin, baina senarrak alaba izan nahi zuen. Zumarragan baziren bi emakume ezagun elizarekin oso lotuak zeudenak eta haiek Santa Anari bederatziurrena egiteko esan zieten. Gero, neska jaiotzen bazen, haren izena jarri behar. Halaxe jaio zen eta Ana Maria jarri zioten.

Transkripzioa

- Gero kontaiozu nola ekarri zenun neskea.
- A bai!
- Ze pasatu zan ba neskeakin?
- Ba nere senarrak izugarrizko ilusioa zeuken neska izateko. Nei ez zian inporta, e! Hiru mutil neuzken eta nei ez zian inporta, "yo estaba conforme con los chicos". Baiño nere senarra juten zan, esnea eamaten gendun Zumarragaa. Periko `Txiki´ aitzeraik ez daukezu zuk?
- Ez.
- Ordun bai, ordun asko aitzen zan Periko `Txiki´ñekoa.
- Periko `Txiki´ñekoak, eramaten zun esnea Zumarragara?
- Bai, bai. Eta haiek han zeuden bi emakuma, jesuitakin "muy metidas". Eliza´re hantxe zeukaten. [Etxen behintzat] zeukaten haek eliza´re. Jesuitakin amistade haundie.
- Baiño hoiek zeintzuk esaten dezu?
- Periko `Txiki´ñekok.
- A! Bi... bi emakumak.
- Bi emakuma, bai, bi emakuma.
- Ta zer zian Periko `Txiki´horren alabak edo?
- Bai, bai, bai, bai.
- Eta hoiek esaten dezu zeudela elizakin-ta oso sartuta?
- Bai, oso. Elizan bertan. Ta oain arten euki due, e! Egon [da] elizan...
- Nun Zumarragan?
- Bai, Zumarragan, Zumarragan, hure Zumarragan. Eta... Bai, Zumarragaa eamaten zan ordun esnea Ezkiotik. Ezkiotik Zumarragaa eamaten zan. Eta horrela behintzat... A! Gero, bai, senarrak nahi zon neska. Neska.
- Neska, bai, hori da.
- Eta Periko `Txiki´ñeko horik esan zioten, ba, nobena bat emango zuel... beak emango ziola liburua eta nobena itteko "a Santa Ana". Bai, Santa Anai eitten zitzaion, eskatzeko. Eta han danok gu fede guztikin jarri belauniko sukalden eta nobena. Eta nobena hori ein ta konsegitzen baldin bazan, izena hala jarri behar zala: Ana. Ana jarri behar zitzaiola, Santa Anai hori ez zitzaiola kendu behar. Eta etorri zan, ba, gau baten Bengoa -ese el que me llevó a San Sebastian y eso, mediku hori-, ni parton jarri nintzenen, eta jaio zan neska, ba! Oain daukeun alaba hori.
- Eta?
- Eta gero ipini giñon Ana Maria.
- Ana Maria?
- Ana Maria izena.
- Honbre, kunplittu in behar die gauza hoiek! Brigida jarri ezkeo, auskalo! Ana Maria jarri behar zitzaion horri.
- Bai, hori. Periko `Txiki´ñeko horik aklarau zuen hori.
- Oseake, nobena ez zenduen alperrik ein.
- Ez. Nobena, ez dakit... Nobena hasteako "ya tendría que ser lo que sería", baiño, bueno. Oain hori pentsatzen deu, baiño ordun... Ordun fede haundiikin danok.

4.3. Seme-alaben ikasketak

- **Hizlaria(k)**: Bereziartu, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Bereziartua, Joxe Manuel "Bere"
- **Erref**: EZK-004/021
- **Iraupena**: 0:05:57. **Hasi**: 00:35:00. **Bukatu**: 00:40:57

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

- **Laburpena:** Semeen ikasketez hitz egiten du, batak fraideetan eta besteak jesuitetan ikasi zuten. Orduko pasadizoak kontatzen ditu. Seme bat ikasketak utzi eta berehala ezkondu zen. Beti izan ziren ikasle onak. Alabak mojetan ikasi zuen eta gogorra egiten zitzaion. Pakitak beti bultzatu ditu ikastera, gogoko zuen berak ere eta haurrak zirenean kredoa eta dotrina irakurri ohi zien.

Transkripzioa

- Ta ze mouz semeak eta alaba hazitzen? Ondo? Ondo portau zien txikitan ta?

- Hoek?

- Seme-alabak eta.

- Bai, oiii, gaiñea, nik semek hamar urtekin bialdu nittun bat frailetaa, bestea jesuitataa... Eske...

- Biali in zenittun? Biali?

- Bidali, baiño eak oso azkarrak zien eta nahi zuen. Guk obligau nada, para nada, obligazioz ezer ez. Periko `Txiki´ñeko horik amistadea zeukaten Jesuitakin eta bazekien gure semea bizkorra zala.

- Xabierrekin ai zea oain?

- Xabier ez, bestekin. Jesuitata bestea jun zan. Xabier jun zan a los Pasionistas.

- Baiño zaharrena ez da Xabier?

- Xabier bai, zaharrena Xabier.

- Osea, bata, Xabier, Pasionistatara...

- Eta Jesuitataa Iñaki.

- Osea, seminaria ikastera baita´re, ez?

- Bai, bai, ikastea, eta beti resultado onak eman zittuen horik, Beti, beti ikasten oso onak, mutil onak eta...

- Nora jun zien? Zein tokitara?

- Bat Gabirira, Gabirin zeren Pasionistak. Xabier horra. Eta bestea Loiolaa Jesuitakin. Jesuitataa bestea. Hola zan.

- Eta han ikasten ta...

- Han ikasten. Eta gero ze pasa zan ba? Xabierrek, gaiñea, abittue ta danak hartu zittun, e! Deustun edo Angosto. ¿Dónde es Mailo? Deusto o Angosto?

- (Senidea): Deusto.

- Deuston. Bai. Han izan giñen danok, famili guztie.

- Oseake fraile ein zan behintzat...

- Abittue. Hure aurea zijon, aurea zijon ya. Eta han. Eta gero... Eta Iñaki zan, zeara, Jesuitataa, berriz, horik Loiolan. Eta etorri da Arrupe.

- Arrupe? Zea, Jesuitan nagusie?

- Bai, nagusie. Eta harek esan omen zon mutilek alperrik zeuzkatela ta danak etxea, danak etxea bealdu zittuzten.

- Fraide gai gehiegi zegoela.

- Bai, bai, ez zien konbentzitzen, gaiñea. Gu bisitatzea´re jun giñen; askotan juten giñen ta. Baten ez zeudela ondo ez zebiltzela ta etorri giñen disgustauta. Frailek zeren... ez zeren konforme "con nadie" ta ez zekien ze esan´e guri´re. Eta bueno. Guk beti esaten giñun: "zuek bizi behar zeate ta zuek elegittu". Guk sekula ez giñun behartu aurea segitzea ta holakoik, behin ere ez. Guk beti libertade hori, bai nere senarrak eta bai nik.

- Gero Xabierrek ya, zea, apaiz... atera in zan fraidetik eo utzi in zion elizai.

- Bai, bai, eske haiek ere asko atera zien ordun Pasionistatetik, bere lagunek-eta atera in zien.

- Bai, ta bera´re bai.

- Bai, bera´re atera in zan.

- Ta gero segittu zun ikasten edo?

- Ba bakuitz... Hori eak zeukaten gogo haundie ikasteko. Erreztasune. Amonak irakurtzeko bezelaxe horik´e erreztasune ba. Bai. Eta heorik bakuitzek beren alderditi, zeatio guk ez genduken diruik.

- Ya. Eta bekak eta gauzak lortu zittuzten o nola edo hala konpondu zien eta ikasten segittu, ez?

- Ikasten, bai. Osea Javier beak irten zon ta gero hura ezkondu in zan gaiñea geroztik, geroxegon. Bai. Han emaztea etorri zan gure baserrira´re etortzen zan ta ezautu gendun ta horik danak. Eta, bueno harekin, behintzat harekin ezkondu. Eta Iñaki, berriz, Jesuitana. Ba... Arrupek, beno, etxea bialtzeko. Bai. Eta gurea hain bizkorra eta ona ikusten zuen, ba, jesuita batek -Padre Abete zan hure, gaiñea, ez dakit bizi dan o... eta harek- eaman zon bere familiarte batea -en Andoain o holako herri bat da, hor da behintzat Villabona ondón behintzat- eta han urtebeten euki zon. Es que le daba pena el chico, bizkorra ta...

- Bai, balio duena eta etxera bialtzea...

- Balio duena ta... Bai, ba. Eta han euki zon behintzat. Gero handik´e, han beti ezin ba segi, eta hura´re bere kontua, bere kontua hasi zan ikasten. Bai horik bik bean kontua hasi zian ikasten. Eta...

- Osea, bi semek behintzat laster etxetik alde in zuten, o jun zien beren bizimodue ittea o...

- Bai, bai. Ikastea, ikastea, horik ikasten.

- Eta gero neska ere andereño da, ez? Ana Mari.

- Bai.

- Oseake, horrek ere... Horrek nun ikasi zun?

- Horrek monjatan, Zumarragan, monjatan. Bai, hure nik bialdu non. Baiño monjatatio´re rekuerto onak ez zittuzten ekartzen, e! Nik ez dakit zer pasatzen zan, baiño...

- Gogor xamarrek igual monjak edo?

- Que no les gustaba hango izakerea.

- Bai, giroa ta...

- Giroa ez zaie gustau. No.

- Dena den, zuek sartu diezu hola pixkat ikasteko zera´re bai, ez?

- E?

- Zuk pixka bat bultzatuko zenittun ikai zezaten.

- A! Hori bai. Hori bai.

- Txikitan-ta leitzen al zenien zuk? Oso irakurle ona ziñela esan dezu.

- Bai.

- Eta irakurtzen al zenizkien bertso zaharrak edo dotriña edo?

- Dotriñan erakutsi bai! Erakusten nien.

- Bai?

- Klaro, hoixe! Aurrena amak erakutsi behar txikik dianen.

- Bueno, baiño baserri askotan igual...

- Ez... baiño guren bai. Ni nola nitzen eta bi gizonezko bazeren laneako eta nik hori baneuken.

- Senarra eta bere anaia, ezta?

- Bai. Umei emateko. Hori.

- Eta ze irakurtzen zenien dotriña eta holako gauzak?

- Bai, bai, dotriñako gauzak dauzket oaiñ´e. Bueno, no todo, baiño kredoa, agurra, salbea, eta aita gurea eta gauza horik... nik ordun ikisita bezelaxe. Bai, ordun ikisita bezelaxe.

4.4. Baserritik baino eskolatik etorkizun hobe

- **Hizlaria(k):** Bereziartu, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bereziartua, Joxe Manuel "Bere"
- **Erref:** EZK-004/024
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:41:58. **Bukatu:** 00:43:49
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
Baserrira » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Semeek ez zuten gogoko baserriko lana, ikasketarako gehiago balio zuten. Senarrak eta koinatuak egiten zuten lan baserrian. Gazteek ez zuten bizimodua baserritik ateratzerik. Semeen inguruan hitz egiten du.

Transkripzioa

- Laurak, ez? Baserrin lan egin zuten txikitan, gero hasi zien ikasten...

- Bai, baiño Xabier, ez zon bat´e balio baserrin lana itteko. Ez, Xabierrek... Eta bestek´e ez zon gogokoa.

- Gaiñea, ikasteko aukera euki ezkeo ta azkarra izan ezkeo... Baserrira lan gogorra da, e! Polita da, baiño...

- Gaiñea erreztasune zeukaten ta.

- Baiño senarra ta zea baserriko lanetan.

- Bai, bai. haiek bai. Ta, esan deana, fruta ipintzen. Koiñatuk zon frutako gogoa. Ta geo behiek gutxi, behiek ez zuen ezer ematen. Ta fruta´re... Fruta garaien, belarra ta danak izaten zien, ta se echaba a perder todo.

- Bai. Ez fruta ta ez belarra ta...

- Hori da. Hoixe, hoixe esan gendun.

- Bueno, baiño nola edo hala atea ziñaten aurea behintzat.

- Bai, osea, semek eak. A! eta Luis Mari hau, Luis Mari... koiñatok nahi zon "bat behintzat etxen utzi beharko deu" esaten ziun "bat etxen behintzat". Eta, bueno, ba. Luis Mari Irimon –en la fabrica de Irimo– bazebilen lanen eta gustora zebilen. Eta Luis Mari han segitzea, ba. Baserrin gelditzea ez gendun nahi e, porque no... gazte batentzako ez zan ezer ateratzen baserrin, gure baserrin. Atera behar zan, baiño ez zan ateratzen, ez zuen hortaa eman ta. Ta Luis Mari fabrikari seitzea Irimon. Harentzako´re eskabide bat izan gendun, ya ni me acuerdo de dónde, baiño fraile edo horitako bat.

- A! Baita?

- Baita, eskabidea, bai. Baiño no! Ez, hura behintzat ez, hura etxeako. Eta Luis Mari etxeako. Eta oso ona izan zan Luis Mari. Fabrikari iten zon eta gero etxea etortzen zanen´e, etxeako... launtzen ziun, belarra garaien ta holakotan. Laundu itten ziun guri. Eta jatorra, jatorra izan da Luis Mari oso.

5. Politika

5.1. Sozialistek nagusia hil zutenekoak

- **Hizlaria(k):** Bereziartu, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bereziartua, Joxe Manuel "Bere"
- **Erref:** EZK-004/011
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:11:32. **Bukatu:** 00:15:26
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak
Lanbideak » Neskameak

- **Laburpena:** Caballero, bere nagusia, sozialistek hil zuten bera neskame han zegoela. Berak zabaldu zien atea. Orduko pasadizoak kontatzen ditu. Nagusia eta anaia biak hil zituzten.

Transkripzioa

- Eta esan dezu fusilatu egin zutela gizon hau.
- Bai, osea, gerra denboran. Gaiñea atea neuk iriki nien; "socialistas"! Sozialistak zien.
- A bai?
- Gaiñea, hori´re badakit. Sozialistak esan ziaten. Jun zien bi gazte, atea jo zuen ta ni, atea errebitzen ni eoten nitzten, kozinera ez!, tenía que estar yo. Eta irten non eta nausie aber etxen zeon esan ziaten eta bai, despatxon zeola eta "Esaiozu irtetzeko"- esan ziaten. Ta hala irten zon eta bi edo hiru hitz, nik ez dakit gutxi hitz ingo zuen. Gero nausik eskau zittun, ba, bi alaba zeuzken, eta haiekin eotea. Haiei eman zien musu bana eta beste sozialista horik aide eaman zuen nausie eakin, atea etorri zienak, bai, eaman zuten. Bi musu eman alabai, haik utzi zittun, ta eaman zittuen. Bueno, gero euki zittuen Tolosan kartzelan. Bai, Tolosan zan hori eta kartzelan sartu zituen hure ta beste anai bat´e bai berea. Eta...
- Segi, segi, segi, zuk segi... Anaia eta biak kartzelan.
- Eta gero Donostira pasa zittuen. Donostiko kartzelan bat eo zeoze, Donostira behintzat. Bueno, han´e euki zittuen, ez dakit, egun batzutan. Eta alaba jun ikustea´re, eta de mala manera tratatu omen zittuen han zerenak, sozialista horik, a las hijas, ta haiek near, near egiten zuten. Ze in behar zuen ba aita hala ikusita? Amaik ez zeukaten... eta horrela behintzat. Eta gero han egun batzutan euki zituen Tolosan ta gero Donostira pasa zituela. Eta Donostin eaman kanposantura ta pin-pun, pin-pun hamaika hil. Hamaika eaman zittuela esaten, guk hori entzun gendun, eta han fusilau in zittuzten. Ta gero guri entregau ziuten, me acuerdo, beak zeuzkaten eskapulariok, nagusik zeuzkanak, ta haiek etxea ekarri zittuen. Sozialista horik izango zien ekarri zuenak, alguien... behintzat ekarri zittuen etxea. Baiño nausie falta. Bi anai hil zittuzten han, nausie ta bere anaie. Hure konzejala zan bestea, baiño gure nausie ez zan ezer, bakarrik fabrika zeukela. Baiño beak esaten zuena, oso ona zan, eta gaiñea esaten zon, nola etortzen bazan erdaldune o euskaldune o quien sea, harek lana denai ematen ziela. Eta... on puska bat! Lana danai eman, sin distinción, eta hori esaten gendun. Han bestea aunke sea zan konzejala ta... tenía...
- Kargu bat... politikan kargu bat zukan, baiño...
- Bai, kargu bat zeukala. Baiño gurek, esan deana, enpresa. Baiño danai ematen ziela, hori esaten zuen.
- Eta, ordun, zuk nola geldittu zinen? Han lanean jarraitu zenun?
- Ez! Bueno, arten bai. Gero zeukaten seme bat... gaiñea, ordun republika garaie nola zan, seme bat kartzelan Bilbaon. Hure´re harrapatu in zuten, baiño hue ez zuen hil, bakarrik a Bilbao.
- Seme bat Caballero horrena?
- Bai, bai, horrena! Jose Mari. Hil zan. Eta hure, detenitu in zuen hure´re eta hure Bilbaora pasa zuen. Eta Bilbon han hamaika hilabete-edo euki zittuzten gerra denboran. Hure ez zuen hil, baiño han euki zuen, esan dana, un... tal tiempo Bilbaon. Hure etorri zan etxea.
- Etxera etorri zan.
- Bai, etorri zan etxea.
- Eta, ordun, zu han zeunden etxe hartan...
- Bai, hartan. Ordun bai.
- Segitu zenun?
- Bai, zeatio seme hure, gaiñea, ezkonduakoa zan eta andrea han zegoen.

Uf! Andrek´e rato batzuk, kalen´e mareauta-ta cuando veía algun avión ta... bakizu, larrialdik.

- Bai, bai, gerrako...

- Bai, bai, ba hua euki zuten hala.

6. Ekonomia eta industria

6.1. Paper lantegian eta "Boinas Elo segi"n lanean

- **Hizlaria(k):** Bereziartu, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bereziartua, Joxe Manuel "Bere"
- **Erref:** EZK-004/013
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:17:52. **Bukatu:** 00:18:53
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Tolosaldeko lantegiak
- **Laburpena:** Neskametzatik atera ondorenean ahizpak eta biek Tolosan jarraitu zuten lanean. Bata paper lantegian eta bestea "Boinas Elo segi"n aritu ziren lanean.

Transkripzioa

- Eta zu ya etorriko ziñan etxera bueltan o ze?
- Bueno, segittun ez, baiño bai, bai, gero bai. Gero ya...
- Moja jun baziren hoiek eta...
- Bai. Gero ya "las dos hermanas". Horregatio dauket gero papeleran; ni papeleran eta nere ahizpa "en las boinas".
- Hemen?
- Elo segin. Elo segin sartu giñen han lanen.
- Tolosan?
- Bai, baserrira etorri gabe han sartu giñen.
- A!
- Horregatio.
- Osea, neskametik atera ziñen, baiño Tolosan segitu lanen.
- Bai, osea, papeleran, hantxe aldamenen. Bai, bai. Eta ahizpa "en las boinas".
- A! Elo segin, han.
- "Boinas Elo segi"n, bai. Horixe dauzket gogon. Hala segi gendun.
- Eta zenbat... denbora asko egin zenuten han Tolosan gero ya esan nahi det papeleran ta...?
- Bai, papeleran ta hola egin gendun denbora pixkat, zeatio nik Tolosako berri badakit dexente. Bueno, oain oso kanbiauta gare danok, e!
- Dana dao oso kanbiauta.
- Dana, dana oso... hemen´e bai ta han´e hala... Baiño Tolosa, ba, pixkat ezautzen det.

7. Herria, azpiegitura

7.1. Aurrerapenak; lehenengo garbigailua

- **Hizlaria(k):** Bereziartu, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bereziartua, Joxe Manuel "Bere"

- **Erref:** EZK-004/019
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:30:58. **Bukatu:** 00:33:12
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena:** Lehenengo garbigailua gogoan du. Senarrak ez zuen nahi, baina epeka ordaindu zuten. Ordura artean eskuz moldatzen zen.

Transkripzioa

- Eta lenengo labadora?
- Lenengo labadora izan gendun "a plazos" había que comprar, ez genduken diruik eta para pagar en mano, a plazos. Gaiñea zan una lavadora "Preciosa" izena ekarri zon, eta a plazos. Etorri zan. Eta senarrak ez zon nahi a plazos no quería comprar nada, baiño nik nahi non tener algo, una lavadora.
- Bai, bai. Porke zuk ordura arte harrikoa, arropa garbittu eta hori, eskuz egin beharko zenun.
- Bai, bai, bai, eskuz, eskuz.
- Seiñale du berak ez zula garbitzen, bestela ekarriko zon lenao.
- Baiño "a plazos". Ta hure´re pobre zan. Pobrea da no tener dinero para eso tampoco. Eta senarrak ez zon nahi, baiño nik bai. Behintzat konsegitu non ekartzea, ekartzeko, ta Preciosa izena zon bat. Etortzen zan, hola, etxez etxe ibiltzen zan saltzen, ta gizona etorri zitzaion ta esplikatu ziun nola zebilzkin. Ta nik behintzat egin non ekartzeko posibilitadea. Eta a plazos jun giñen. Pagatu gendun. Bai. Ta halaxe jun giñen, e! Hilan-hilen. Ez dakit hilen zenbat behar zan.
- Bai, bai, diru bat...
- A plazos. Bai, diru bat eman behar zan. A plazos pagatu gendun.
- Aurretik garbittu arropa-ta ze itten zenun, hemen bazenuten labaderon bat, edo Ezkion edo?
- Etxen, sukalden barrun. Lejian ordeztutako hautse ibiltzen zan.
- Bai, hori entzunda nao, bai, horrek izugarri txuritzen duela arropa ta.
- Zeoze beharko gendun ta, besteik ez zeon ta. Guk sukalden genduken.
- Eta eman ondo eskukin ta igurtzi ta...
- Sukalden oso leku ederra genduken Esan diot honek behin baiño gehio, pena ematen dit...
- (Senidea): Baiño hori zure etxen.
- Andondin. Bai, bai.
- Baiño hemen Igartubeitin?
- A bai, Igartubeitin bai, labadora-ta ekarri giñutzen laister.
- Bai, baiña hasieran egingo zenuten eskuz´e baita.
- Baita, bai, bai, bai.
- Udaran ondo, baiño negun...
- Ordun ordukoa, ordun ordukoa.
- Ño! Ura hotza egongo zan ba.
- Baiño aguantau ein behar ba.

8. Bestelako kontuak

8.1. Igartubeiti, garrantzi historikodun baserria

- **Hizlaria(k):** Bereziartu, Pakita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bereziartua, Joxe Manuel "Bere"
- **Erref:** EZK-004/027

- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:52:33. **Bukatu:** 00:53:45
- **Gaia(k):**
Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena:** Beren baserriak (Igartubeitik) garrantzi historikoa zuen arren, ez zuten sekula haren baloreaz pentsatu. Gaur ere haren ingurutik askotan pasatzen da, baina ez du faltan botatzen, oso zaharkitua baitzegoen utzi zutenean. Gaur bizi den etxetik ikusten du lehen bere baserria izandako hura.

Transkripzioa

- Bueno, Pakita, gero, ordun, ya hasi ziren aztertzen nola Igartubeitik zeuken bere fatxada berezi hori ta barruan Dolarea zan ta... Zuk ze pentsatu zenun hori guztikin? Porke pentsatu zazu bizi izan zarela urte askotan baserri oso balioso batean.
- Bueno, baiño...
- Zuri burutik pasatu're ez hau, ez?
- Ez, ez, ez, ez. Zaharra zala ta que ya no... ez gendela gustora gu han.
- Baiña Igartubeiti zer zan eta leitu dezu gero paperetan eta jun zea ikustea eta esplikatu dizute zer daon han? Hau dolarea zan ta fatxada hau egurrezkoa ta...
- Bai hori. Beno, ez nahiz ni gehiegi barrura jun, baiño kanpon bai. Kotxen pasatzen naiz.
- Ta beituko diozu baserriari eta esango dezu "hau...?"...
- Bai, gertun dao ta etxetik, hemendik, hemendik ikusten det. Hemendik ikusten det nik hure. Eta oain...
- Kariñoa eukiko diozu, ba, bizitako...?
- Para nada! Kariñoa? Oso zahartuta [sentitzen non].
- Ya, gauza bat da...
- Etxe zaharra. Han... por no vivir allí, gu deseatzten genden alde itteko.
- Eta hori ondo atera zan, ez?
- Bai, bai...
- Eta orain hemen bizi zea.
- Eta hemendik ikusten det.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Eskolan Santa Luzian eta Zumarragan (EZK-005/002)

Eskolan Santa Luzia auzoan hasi zen. Maistra kanpotarrak zituen eta erdara hutsean egin behar izaten zuten. Astean bi egunetan Zumarragara joaten ziren apaizen arrebeekin dotrina ikastera. Dotrina derrigorra zen jaunartzea egiteko. Santa Luziatik Zumarragako "hermanoetara" joan zen ikastera.

2. Sendotza egitera Kizkitzatik mendiz Astigarretara (EZK-005/003)

Junartze txikia Santa Luzian eta handia Ezkion egin zituen eta sendotza Astigarreta auzoan. Ezkion Kizkitzatik bueltan mendiz joaten ziren Astigarretara. Jaunartzea norberak nahi zuen erropekin egiten zuten.

3. Etzetik eskolara kamioiean (EZK-005/004)

Santa Luziako eskola amaitu eta Zumarragako "hermanoetara" joan zen ikastera. Barakaldoko irakasle batek jartzen zizkieten zigorrak aipatzen ditu. Bazkaria etzetik eramaten zuten eta eskolako jangelan jaten zuten. Martinek anai bat zuen. Etzetik eskolara 2 kilometro inguru zituzten eta ezagun baten kamioi gainera igota joaten ziren.

4. Pilotan eta kaniketan jolasean (EZK-005/005)

Umetan pilotan jolasten zuten gehienbat, eskolan bertan zuten frontoia eta. Hondarretan kaniketan aritzen ziren. Pilota txapelketetan atera zenekoa kontatzen du eta pilotan jokatzen zuen fraide baten aipamena egiten du.

5. Esne-behiak etxean (EZK-005/007)

Baserritik bizi izan ziren beti. 7 esne-behi zituzten eta esnea Zumarragan eta esne-zaleari saltzen zioten. Behiak eskuz jezten zituzten. Anaiaren aipamena egiten du. Aitaren anaiak tratuko behia edukitzen zuen etxean. Bi ikuilu zituzten. Ikuilua sukalde ondoan izaten zen.

6. Altsasuko artzaina erreterero (EZK-005/009)

Oilo eta oilasko ugari zituzten. Arrautzak amak saltzen zituen Zumarragako azokan. Udazkenean ardi zaharrak erosten zituzten saltzeko. 44 urtean Altsasuko artzain bat egon zen erreterero Martinen etxean artaldearekin.

7. Txerri-hiltzea, egun osoko festa (EZK-005/010)

Urtean bi txerri hiltzen zituzten etxean; Urretxuko osabak eta etxeko artzainak hiltzen zituzten. Egun osoko festa izaten zen eta odolki eta txorizoak amak egiten zituen.

8. Mondejua, odolkia eta buzkantza (EZK-005/012)

Mondeju, odolki eta buzkantzen arteko ezberdintasunak aipatzen ditu. Amak egiten zituen eta auzoko etxe jakinetara eramaten zituzten. Apaiz eta medikuei beti ematen zitzaizkien mondeju, odolki eta baita oilaskoak ere.

9. Txerriak gazituta mantentzen zuten (EZK-005/013)

Txerria etxean hiltzen zuten oholekin egindako mahai batean 3-4 lagunengan artean. Ikuiluan edo artegian hil eta kakoan zintzilikatzen zuten. Urdaiazpikoa gazitu eta hormigoizko kutxan gordetzen zuten. Handik ateratakoan piper-hautsa emanda lehortzen jartzen zuten.

10. Gurasoak gaztagileak (EZK-005/014)

Gurasoak gaztagileak zituen eta gazta nola egiten zuten azaltzen du. Gazta egin ondoren keetu egiten zuten haltz-berde egurrez, izan ere, egur ezberdinen arabera, gaztaren kolorea ere aldatu egiten da. Ez zuten kalera saltzen, etxerako egiten zituzten.

11. Zelaiak banatzeko, mugarriak (EZK-005/016)

Zelaietan mugarriak jartzen zituzten banatzeko; harriak izaten ziren seinale. Belarra segaz ebakitzen zuten Ezkioko segalariek. Idiei gurdia eta lera lotuta aritzen ziren belarretan. Segala lantegia Legazpin zegoen. Martinek umetatik ikasi zuen sega zorrozten eta arbel-harriz, harriz eta mailuz egiten zuten.

12. Belar-metak (EZK-005/017)

Belarrarekin metak egiten zituzten. Ganbaran gordetzen zuten belarra, librean. Ganaduari baba ematen zieten jateko. Etxean arto-sail handiak izaten zituzten.

13. Traturako ganadua txukuntzen (EZK-005/019)

Artajorran etxekoak aritzen ziren. Martin behiak saltzeko txukuntzen aritzen zen, osaba tratularia zuen eta hari laguntzen zion.

14. Ganadu txapelketetako partaide (EZK-005/020)

Idiak uztartzeko uztarriak pago-egurrez egiten ziren gehienetan. Aitak ganadu txapelketetara joateko afizio handia zuen. Pasadizo bat kontatzen du.

15. Azoka ezberdinak (EZK-005/021)

Urretxuko azoka ganaduena izaten zen, eta baita Azpeitikoa eta Ordiziakoa ere. Barazki eta bestelako jeneroen azoka astean behin izaten zen.

16. Artoa eta garia egiten zuten (EZK-005/022)

Etxean artoa, garia, etab. egiten zituzten. Auzokoak elkartzen ziren arto-zuritzeko garaian. Ezagun batzuen aipamena eta egiten zuten festa aipatzen du.

17. Ogia eta sagardoa, etxean eginak (EZK-005/023)

Amak asteko ogia labesuan egiten zuen eta honen inguruko azalpenak ematen ditu. Umetan errazionamenduko ogia ezagutu zuen, ez zen jateko modukoa izaten. Etxean prentsa zuten sagardoa egiteko, eta auzokoak ere joaten zitzaizkien sagardoa egitera. Egurrezko kupelak izaten zituzten. Bost sagar gazi eta bat geza behar izaten ziren, eta zakuka eramaten zuten. Sagarra eskuz biltzen zuten saskira.

18. Eguneroko jakiak: berdura eta potajea (EZK-005/024)

Eguneroko otorduetan ardoa eta etxeko sagardoa edaten zuten. Zahagi ardoa izaten zen eta Lakuntzar batek eramaten zuen. Berdura eta potajea jaten zuten: gauero porru-patatak izaten ziren eta eguerdian babarruna. Arraina garestia izaten zen. Amak taloak egiten zituen beheko suan. Asteburuetan garbantzua eta oiloa izan ohi ziren jaki berezi.

19. Soldadutzan bandako musikari (EZK-005/025)

21 urterekin egin zuen soldadutza Iruñeetan eta Auritzen. Bandan aritu zen bonboa jotzen, eta anaia bikia ere berarekin ibili zen. Soldadutzako kontuak kontatzen ditu eta kide izan zituenen aipamena egiten du. Kanpan egiten zituzten entseguak bandarari zin egiteko ekitaldietarako eta militarren desfile batzuk ere egin zituzten. Etxera bueltatzeko baimena astero izaten zuten. Autobusean etorri eta taxian bueltatzen ziren.

20. Orbegozo lantegian lanean (EZK-005/026)

Soldadutzatik bueltatu zenean 22 urterekin Zumarragako Orbegozo lantegian hasi zen lanean aitari esker. Lan ezberdinak egiten zituen, burnia lantzen zuten; honen inguruko azalpenak ematen ditu. 3 errelebotan lan egiten zuen eta soldata txikia zuten egiten zuten lanerako. Irabazitakoa etxean entregatzen zuen.

21. Luistarren kongregazioan (EZK-005/027)

Mezara igandero joaten ziren, askotan gaueko erreleboa amaitu eta lanetik zuzenean. Mezara joatea obligazioa zen. Luistarren kongregazioan egon zeneko aipamena egiten du. Apaizak.

22. 18 urte zituenerako neskame (EZK-007/002)

18 urte betetzeko zituela, neskame joan zen Zubietako Aliri baserrira. 3 urte egon zen han lanean.

23. Neskametza utzi behar anaia jaio zelako (EZK-007/004)

Neskame zegoela, anaia etorri zitzaion esatera anaia jaio zela. Orduan, Joxepa etxera itzuli zen. Neskame zela, garbiketak egitea zen bere zeregina.

24. Aliri baserri ederra (EZK-007/005)

Ura bazuten Aliri baserrian. Etxearen antolamendua nolakoa zen azaltzen du. Etxe ederra zen. Joxepak etxeko zereginak egiten zituen: garbiketak, janaria prestatu... Egurra argizariarekin garbitzen zuten.

25. Aliri baserriko sukaldea (EZK-007/006)

Aliri baserriko sukaldea ederra zen. Morroiek eta nagusiek denek batera jaten zuten. 3 ume zituzten familia hartan. Sukalde hartan ekonomika, harraska eta mahai handi bat zuten.

26. Emakumeen lana baserrian (EZK-007/008)

Emakumeek etxe barruan egiten zuten lan. Otorduetarako zer janari prestatzen zituzten azaltzen du.

27. Arropa eskuz garbitzen zuteneko zertzeladak (EZK-007/009)

Arropa egunero aldatzen zuten Alirin. Arropa hura garbitu eta plantxatu egin behar izaten zuten. Arropa garbitzeko, xaboia erabiltzen zuten. Garbitegia etxean bertan zegoen. Arropa zikinak terreina handi batean jartzen zituzten. Morroien arropak garbitzea umeenak garbitzea baino zailagoa zen. Arropa zuria eta kolorekoa denak batera jartzen zituzten. Lixiba ez zuten egiten.

28. Anaia jaio zelako etxera bueltatu behar (EZK-007/012)

Joxepa neskame zegoela, anaia etorri zen beste anaia bat jaio zela abisatzera; etxera bueltatu behar izan zuen orduan.

29. Anaia koskortutakoan, hotelera lanera (EZK-007/013)

Anaia zaintzen aritzen zen Joxepa. Anaia koskortu zenean, Zumarragako hotel batera joan zen lanera, eta han 6 urte egon zen lanean. Hotelean hainbestean jaten zuten. Etxeko andrea dotore janzen zen goizean goizetik. Hoteleko zereginak aipatzen ditu.

30. Umea Fraisorotik hartu zutenekoa (EZK-007/021)

Ezkondutakoan, etxean umerik ez zutenez, mutil koskor bat hartu zuten Villabonatik; baina mutilak 8 urte zituela, ama etorri zitzaion bila Lezotik. Joan behar zuenean, umea nahastuta zegoen. Orduan Joxepak eta bere senarrak pena ikaragarria hartu zuten.

31. Eskolako oroitzapenak (EZK-007/028)

Eskolan maistrak gaztelaniaz egitea nahi izaten zuten, hizkuntza ikas zezaten. Zumarragan gaztelania asko ikasi zuen. Maistra Ataungoa zuten Santa Luzian. Eskolan oinarritzko gauzak ikasi zituzten. Koadernoak eta arkatzak izaten zituzten.

32. Aisaldian Zumarragara edo jolasera (EZK-007/029)

Jaiegunetan Zumarragako eskolara joaten zen, mojetara. Dantzara ez ziren joaten. Jolasteko denbora hartzen zuten noizean behin.

33. Haurrak jaiotzen zireneko ohiturak (EZK-007/030)

Anai-arrebak jaiotzen zirenerako, sehaska eta arropak prest egoten ziren. Bi urtetik behin jaiotzen zen umea. Umea edukitzeko, praktikantea etortzen zen etxera. Ama txukuna zen, eta umeak txukun eramaten zituen. Haur-oihalak eskuz garbitzen zituzten.

34. Bataioaren inguruko ohiturak (EZK-007/032)

Umea jaio eta hurrengo egunean, bataioa izaten zen. Ama ez zen joaten bataiora, artean ohean baitzegoen. Aitajauna eta amandrea izeba-osabak izaten ziren. Umea eduki eta bi aste ingurura, ama elizara joaten zen.

35. Gerra hasi eta italiarren batailoia etxean apopilo (EZK-007/035)

Gerra hasi zeneko oroitzapena gogoan du. Baserrian italiarren batailoia egun batzuetan izan zuten. Gurasoek hitz egiten zuten haiekin, gaztelaniaz moldatzen baitziren.

36. Mezara fin joaten ziren (EZK-007/037)

Elizara lehen asko joaten ziren, jaiegun guztietan. Mezak zer ordutan izaten ziren aipatzen du. Joxepa goizean goiz joaten zen mezara, baina ordurako argia egoten zen. Oinez joaten ziren elizara. Inguruko baserrietako denak joaten ziren mezara, bakoitza bere aldetik.

37. Heriotzaren inguruko ohiturak (EZK-007/038)

Norbait hiltzen zenean, gorputz-bideak izaten ziren. Gorpua etxean edukitzen zuten, inguruko jendea hura ikustera etortzen zen. Erramu bedeinkatua etxe guztietan egoten zen. Ur bedeinkatua ere izaten zen. Norbait hilzorian bazegoen, apaiza azkar etortzen zen oinez. Hil aurretik oliodurak ematen ziren. Etxean kandela jartzen zitzaion hildakoari.

38. Argia eta plantxa lehen (EZK-007/040)

Garaiak asko aldatu dira. Argindarra ez du beti ezagutu izan etxean. Lehen petrolio-ontziekin lortzen zuten argia. Plantxak ikatzarekin funtzionatzen zuen; ekonomikaren gaineko plantxa ere ezagutu zuen.

39. Ogia lehen etxean egiten zuten (EZK-007/041)

Sukaldeak asko aldatu dira. Ogia egiteko izaten zen labea lehen. Amak egiten zuen ogia. Garia eta artoa ereiten zuten. Astoarekin joaten ziren errotara irina ekartzera, baita gerraostean ere. Amak ogia nola egiten zuen kontatzen du. Labea egurrarekin berotzen zen. Egurrak ona izan behar zuen.

40. Gaztainak saldu janaria erosteko (EZK-007/042)

Mendian gaztainak biltzen zituzten eta Zumarragan saltzen zituzten. Gerra ostean, olio urria zen. Arraina ekartzen zuten. Emakumeak saskia buruan zutela ibiltzen ziren.

41. Gazta eta taloa egiten (EZK-007/045)

Gazta eta taloa nola egiten ziren azaltzen du.

42. Ama Birjinaren kanta (EZK-007/047)

Ama Birjinaren kanta abesten dute.

43. Hoteleko lana eta lan-baldintzak (EZK-007/050)

Hoteleko eskupekoak entregatu egin behar izaten zizkioten etxeko andreari. Etxeko andrea zorrotza eta gogorra zen. Etxeko gizonak tren-estazioko bulegoan egiten zuen lan. Lan asko egoten zen hotelean. Zumarragan bazeuden beste bi hotel. Hotelean langile ugari egiten zuen lan.

44. "Argia" egunkaria; irakurtzen, amak irakatsita (EZK-008/005)

Euskarazko egunkaria ekartzen zuen amak Zumarragako feriatik, arrautzak saltzetik bueltan: "Argia". Amak bazekien irakurtzen, eta erakutsi egin zion; idazten ez zekien, ardizain ibili behar izan zuelako. Elizako liburua ere euskaraz. Zumarragan tren geltokia zegoen, eta erdaldun asko. Erdaraz nola ikasi zuen, berehala.

45. Ogia eta gari lanak (EZK-008/006)

Bera ez zen sagarra saltzen ibili, baina sagastia zuten; dolarea, sagardoa. Amak labean ogia egiten zuen. Garia egiten zuten, errotatik irina ekarri eta bi ogi mota egiten zituen. Gari lanak. Harrian jo, eta bi gari-kutxatan gordetzen zuten. Errota.

46. Gari lanak, auzolanean (EZK-008/007)

Gariaren prozesua. Ur-ardoa banatzen ibiltzen zen bera. Gari metak. Eguzkitan zabaldu. Gizonek jotzen zuten garia, auzolanean. Emakumeek ekartzen zuten, sorotik, gurdiarekin. Gurdiak eta lerak.

47. Karobia; laia eta goldea (EZK-008/008)

Aita Kuban lau urtean egon zen soldadu, eta ez zuen baserrirako afiziorik. Karobia zuten. Egurra ekarri eta harria. Sua egiten zuten, karea egiteko. Saldu egiten zuten. Etxe guztietan laian egiten zen lurra jiratu. Laia nolakoa den. Auzolana. Goldea gero etorri zen. Aita arotz eta hargin ibiltzen zen.

48. Goldea eta alperra (EZK-008/010)

Goldea etorri zenean erretiratu zituzten laiak, eta alde ederra. Batzuek goldearen kontra zeuden. Idi parek zuten, Ataundik harria ekarri eta karea egiteko. Alperra. Simaurra, garoa eta karea, zomorrerik ez izateko. Orain, berriz, intsektizida eta abonua.

49. Amaren baratzea; ama inude ibilia zen Madrilén (EZK-008/012)

Letxugarik ez, baina tomatea eta tipulak izaten zituzten, lekak ere bai. Amak baratzea zeukan; aitona jorratzen. Ama inude izandakoa zen, Madrilén. Sukaldean bazekien, eta babarrun zuriak tomatearekin jartzen zituen.

50. Artoa errotara; taloak egiten (EZK-008/013)

Ganbaran gordetzen zituzten babarruna eta artoa. Errotara eramaten zuten errotara, astoarekin. Aitonak aletzen zuen. Amak artoa esnearekin egosten zuen. Taloak, arto irinarekin. Bahean pasatu, eta orek egin ur beroarekin. Talopala.

51. Sukaldeko tresnak: tupina, zartagiak, platerak (EZK-008/014)

Ekonomikaren ez zen, eta burdinazko tresnak zituzten. Tupina, sagarrak-eta egosteko eltzea. Ardi haragia, "xexina". Tupinari buruzko azalpenak. "Leratza". Brasa. Burdinazko eltzeak. Zartagiak, esne kaldera. Lurrezko txarroak eta platerak. Denak batetik jaten zuten hasieran.

52. Sagardoa, txanpan botiletan (EZK-008/015)

Sagardoa egiten zuen aita. Dolarerik ez zuten, eta kanpoan egiten zuen. Txanpan botilatan. Sobratzen zen sagarra saldu egiten zuten. Astigarragako sagardotegiak eta sagardo edaleak. Sagardoa eta ura. Ura gertu zuten, baina etxean ez.

53. Labaderoa, iturria eta harrizko txarroak (EZK-008/016)

Labaderoa egin zuten neska koskorra zela. Errekara joan behar zuten, bestela. Oria hantxe hasten da. Mendiko iturburua, aska eta iturria. Amonak metal-ur bila bidaltzen zituen beste baserri baten ondora. Harrizko txarroak eta katiluak.

54. Gaztainak eramatera Zumarragara; arrosarioa, iluntzetan (EZK-008/017)

Emakumea buruan xestera hartuta, oinez astoarekin. Gaztainak eramatera joaten zen bera, Zumarragara. Fanega eta orduko neurriak. Fanega bat gaztaina zortzi pezeta. Danbolinean gaztainak erretzen, aitonak arrosarioa errezatu bitartean. Suaren bueltan bilduta. "Angelusa".

55. Aitona karlistadetan soldadu ibilia (EZK-008/018)

Aitona karlistetan soldadu ibilia zen, oñatiarra. Karlistek galdu egin zuten, eta bidali egin ei zituzten. Horregatik joan zen Ezkiora. Oiarbide baserrira. Orain hango soroetan lantegiak daude, oso aldatuta dago.

56. Ipuinak kontatzeko astirik ez (EZK-008/020)

Gaztaina erreak jan, taloak esnearekin, eta ohera. Ipuinik ez zieten kontatzen. Sorginen konturik ez du sinesten: Oñatiko errekan, behin, gauerdian soinuak entzun zituzten gauean; sorginak ote ziren arropak garbitzen. Baina ez, Artxubiko gizona zen, bere galtzak garbitzen.

57. Arima erratuak eta Anbotoko señoia (EZK-008/021)

Arima erratuen kontuak. Mezarako diruak beste gauza batzuetan gastatzeagatik. Anbotoko "señoia".

58. Ezkion Ama Birjina I (EZK-008/023)

Ama Birjina etxe ondoan azaldu zela, baina ez zuten sinistu. Hamabi urte zituenean, Andoainera joan ziren bizitzera. Ama Birjina azaldu zen tokian, taberna eta estankoa zuten batzuek; jendea erakartzeko egin omen zuten hori, Ormaiztegiko bainuetxea itxi zutenetik mugimendurik ez zegoelako.

59. Ezkion Ama Birjina II: nola bukatu zen (EZK-008/024)

Nola joan zen indarra galtzen. Jendetza joan zen, miraria egingo zuelakoan, baina ez zen miraririk izan. Elizak debekatu egin zuen. Sagastian irudia. Gerra aurretik. Arantzazuko fraideak.

60. Sacamantecas, odol-ateratzaileak (EZK-008/026)

Sacamantecas. Ilundu baino lehen joan behar zuten etxera. Odola ateratzen omen zuten haiek, erregeen semeei eramateko. Erregeen familian bazeuden hemofilia zutenak. Alfonso XIII. Donostiara joaten zen oportetan; Zumarraga-Zumaia trena inauguratzera joan zen erregea, Zumarragara, eta beraiek hura ikustera eskolatik. Alfonso XIII nolakoa zen. Harentzat izango zen odola.

61. Eskolan Zumarragan; gimnasian kantari (EZK-008/028)

Eskolan Zumarragan hasi zen, lagunak hara joaten zirelako. Han ikasi zuen erdaraz. Maistra Burgoskoa. Liburu bakarrean zegoen dena eta irakurgaiak beste batean: "El corazón". Geografia oso gustukoa zuen. Gimnasia egiten zutenean, kantari. Kantatu egiten du (erdaraz).

62. Eskolan erdaraz; dotrina euskaraz (EZK-008/030)

Euskaraz ez zuten ezer ere kantatzen eskolan. Etxean Oñatiko euskara entzuten zuen. Ezkion igandeetan dotrina ikastera, erdia erdaraz. Buruz ikasi behar izan zuen, jaunartzea egiteko. "Calabazero", bestela. Kanturik ez du gogoan. Latinez errezatzen. Dotrina berria.

63. Primo de Riveraren diktadura; aita alkate (EZK-008/032)

Primo de Riveraren diktadura. Guardia zibilek kuartelera pasatzen ziren etxe ondotik egunero; masustak jaten zituzten bidean. Orduko debekuak. Hegaztien gaitza. Erretoreak aukeratuta, aita alkate egin zuten. Kartak eramatera joaten zen bera. Trajea egin zuen aita Donostiara joateko gobernadorearengana.

64. Primo de Riveraren diktadura; debekuak (EZK-008/034)

Primo de Riveraren garaiko debekuak: ganaduekin ibiltzeko akuiluek puntan zuten iltzea. Diktadura. Euskaraz hitz egitea ez zuten debekatu. Argia egunkaria igandero; amak erosten zuen.

65. Euskadiko zaharrena Garingo bere izeba (EZK-012/001)

Izen-abizenak. Itsasoko Urteagaundia baserrian jaioa. Aita etxekoa eta ama Garingoa. Garingo senide bat 110 urterekin hil zen. Euskadiko zaharrena omen zen.

66. Itsaso askoz ere handiagoa garai batean (EZK-012/003)

Itsaso garai batean udalerrria zen eta orain baino askoz handiagoa izandakoa da. 100 baserri izan zituen. Gainera Arriaran ere Itsasokoa zen. Baina azkenean Beasainek bereganatu zuen Arriaran. Gudugarreta herria izandakoa da, nahiz eta elizarik ez izan.

67. Astigarreta, hustu egin den auzoa (EZK-012/004)

Astigarreta leku inportantea izandakoa da, bi eliza, bi taberna... Baina orain ia hustuta dago, azken eroldaren arabera 12 lagun bizi dira bakarrik. Urruti geratzen da. Ezkiok eta Itsasok Matxinbenta aldean zituzten baserriak ere hustu egin dira ia denak.

68. Harizti ederrak Ezkion sasoi baten (EZK-012/006)

Kizkitzako pagadia bakarrik geratzen da, beste dena pinu dago. Basoan egin du lan Josek. Harizti ederrak zeuden Ezkion, baina orain ez da bat ere gelditzen. Dena pinu sartu zen, baino orain ez du balio. Frantziatik pinu asko etorri da, haizeak bota baitzituen.

69. Bizitza guztia basoan (EZK-012/007)

Basoan egin du lan beti. Taldean ibiltzen ziren. Baserritarrekin egien zuten tratua. Subastan ere hartzen zituzten basoak, Etxezarretaren pinudiak eta. Zumea biltzen ere ibiltzen ziren neguan. Lan gogorra ei zen, eskuak urratuta geratzen ziren.

70. Lau auzoetan eskola (EZK-012/010)

Eskolako onena zen irakurtzen. 11 urterekin morroi joan zen. Itsasoko eskolara joaten zen. Auzo bakoitzak bere eskola zuen. Neska eta mutil batera ibiltzen ziren Itsason. Familiak oso handiak ziren orduan.

71. Uda eta negu traje eta korbataz ibiltzen zen maisua (EZK-012/012)

Aritmetika ikasi zuten eskolan. Irakurtzen ere bai. Baina hiruko erregelara ez zen heldu. Erdaldunak ziren maisuak, bat Valladolidedkoa "ikaragarri jatorra". Beste bat galiziarra, uda eta negu traje eta korbataz ibiltzen zena. Aspaldi itxi zen eskola

72. Lau apaiz Ezkion eta Itsason (EZK-012/013)

Eskolatik irtendakoan dotrinara ordu erdiz, komunioa prestatzeko. Antzina-antzina bi apaiz omen zeuden Itsason eta beste bi Ezkion. Urruti zeuden baserriak. Matxinbentan, esaterako, ez zen elizarik garai baten. Medikuek ere urruti joan behar.

73. Tifusa eta pulmonia gaixotasun txarrenak (EZK-012/014)

Zumarragako medikua zuten, baina urruti zegoenez praktikanteak betetzen zituen haren eginkizunak, haurgintzak atenditu eta beste batzuk. Tifusa zen gaixotasunik gogaikarriena. Pulmoniarekin ere jende asko hiltzen zen.

74. Mantzanila eta berbena belarra (EZK-012/016)

Mantzanila biltzen zuten urte osorako. Gero, berbena belarrak ("mermen belarra") sendaketak egiteko, eta beste hirugarren bat. Asunak ere erabiltzen ziren odolarentzat.

75. Gau eskolara (EZK-012/017)

Neguan joaten ziren, iluntzean pare bat orduz. Soldadutza egindakoak ere bai. Herriko maisuak edo maistrak ematen zuen. Etxea ordu erdira zuten. Linterna edo farola eramaten zuten argi egiteko. Katuskekin-edo joaten ziren herriraino eta han aldatu egiten zituzten oinetakoak.

76. Goizean goizeko mezara Zumarragara (EZK-012/018)

Zumarragan feria izaten zen igandetan eta sei eta erdietako mezarako joaten ziren baserritarrak feria aurretik. Arratsaldetan jai, gari- edo belar-lanak zirenean izan ezik.

77. Apaiza leihotik dantza lotuari begira (EZK-012/020)

Don Eustakio Mokorua apaiza, tolosarra, fina omen zen. Festetan dantza lotua egiten zen eta leihotik begira egoten zen hura. Hurrengo igandeko sermoian haren aipamena egingo zuen.

78. San Bartolome festak eta dantzasoka (EZK-012/022)

San Bartalometan egiten ziren Itsasoko festak. Eskusoinua eta danbolinteroak egoten ziren. Bigarren egunez dantzasoka egiten zen garai batean baina baina orain galduta dago. Mutilak neska ateratzen zuen dantzara. Inguruko herri eta auzoetan ere egiten da.

79. Garizuman dantzan egiteagatik tximista sartu (EZK-012/024)

Garizuman ez zen dantzarik egiten. Ordiziako taberna batean hasi ziren. Tximista sartu eta hainbat hil ziren, eta jendeak esaten zuen jainkoaren zigorra izan zela. Ostegun eta Ostiral Santu egunez ezin zen pilotan eta jokoan egin. Aste Santuan zeremonia handiak egiten ziren; gizonak trajearekin joaten ziren.

80. Prozesio ederrak Itsason (EZK-012/026)

Prozesio ederrak egiten ziren Itsason, Aste Santuan batez ere. Ama Birjina Doloretakoa ateratzen zen, eta 300 bat metroko itzulia egiten zuten. Maiatzeko Loreak. Corpus Eguneko prozesioa ere oso dotorea zen.

81. Kizkitzako erromeria, inguruko onena (EZK-012/029)

Kizkitzako erromeria zen bere gazte denboran erromeriarik onena. Nuarbe aldetik, Ataundik eta beste leku askotatik joaten ziren Andra Mari egunez.

82. Afaria neska-laguntzera joandako mutilari (EZK-012/033)

Udan jaiero egoten zen nonbait erromeria. Mandubian, jaiero. Gero neska-laguntzea, Matxinbentako puntaraino igual. Errezilen afaria ematen omen zitzaion neska-laguntzera joandako mutilari eta Zegaman duro bat.

83. Mutilak musean, neskak dantzan (EZK-012/035)

Mutilak jaiegun gauetan tabernan egoten ziren afaldu eta musean jokatzeko. Aurrez, eliza atarian pilotan jokatzeko zuten edo boletan ibiltzeko. Mutil guztiek ei zekiten musean eta neska guztiek dantzan.

84. Ezkioko Ama Birjina (EZK-012/039)

Ezkioko Ama Birjina ikusten zuen familiaz. Senide asko izan arren, denak geratu omen ziren ezkongai. Ermita txiki bat eginda dago orain leku hartan.

85. Ezkio aldea autoz beteta Ama Birjina dela eta (EZK-012/040)

Bera ez zen joan Ama Birjina ikustera. Auto ilara Alegiaraino heltzen omen zen. Zozobarroko andrea ogibitartekoak saltzera joaten omen zen. Hiru taberna ezagutu ditu inguru hartan.

86. Gerrako frontea etxetik hurbil (EZK-012/042)

Gerrako frontea etxetik hurbil izan zuten (1936ko udan). Lehenik errepublikazaleak eta gero erreketek. Azken horiek zilarrezko 13 duro harrapatu zizkioten berari. Nafar bat hil zen tiroz.

87. Etxean nafar erreketek luzaroan (EZK-012/043)

Etxean nafar erreketek izan zituzten luzaroan. Gerra bukatutakoan ordaindu zituzten egindako gastuak. Gaizkiago ibili ziren Ormaiztegiko Arane baserrikoak.

88. Gabirian borroka gogorra frontea hautsi zenean (EZK-012/045)

Ormaiztegi aldean zegoen frontea hautsi eta aurrera egin zuten frankistek. Gabirian borroka gogorra izan zen, baina beste lekuetan ez.

89. Sei hildako Itsason, gerra zela eta (EZK-012/046)

Fusilatu bakarra izan omen zen Itsason, baina beste bost soldadu ere hil ziren. Arrosarioa errezatzen zen herrian, norbait hiltzen zenean.

90. Auzo bakoitzak bere ordezkaria udalean (EZK-012/047)

Karlistak gehiago izango ziren nazionalistak baino, baina alde handirik gabe. Auzo bakoitzak bere ordezkaria zuen udalean, bost zinegotzi denera. Alkatea aguazila, praktikantea, epailea... zeuden orduan Itsason.

91. Ezkio-Itsasoko eta inguruko errotak (EZK-012/048)

Ez zuten goserik pasatu gerra ostean. Errotara gauez joan behar izaten zuten, urruti. Garai hartan eskualdean zeuden erroten berri ematen du. Gabiriak zazpi errota izan omen zituen.

92. Itsaso baino herri txikiagoak asko Gipuzkoan (EZK-012/049)

1914ko liburu eder bat dago Ezkio-Itsasoko udaletxean eta han agertzen da zenbat biztanle zuen orduan herri bakoitzak. Itsasok 714 zituen, Goierriko eta Tolosa aldeko herri askok eta askok baino gehiago.

93. Jokoak galdu zuen familia aberatsa (EZK-012/050)

Bazen familia aberats samar bat Itsason, baina nagusia jokalaria zen eta dena jan zuen. Familia horri buruzko xehetasunak.

94. Iratin basomutil, baina ez gustura (EZK-012/053)

Iratin ere egon ziren basoan lanean, baina oso gaizki jaten zuten, eta ez ziren itzuli. Pagoak botatzen jardun zuten. Andra Mari Zuriaren eliza dago Irati, Nafarroa partean.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com